GURE ATATXI-AMATXIEN BIOGRAFIAK:

Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleak gara. Eskolan gure zuhaitz genealogikoa egin dugu eta bidenabar gure senideen istorioak deskubritu ditugu. Horietako batzuk hautatu ditugu zuekin guztiekin konpartitzeko.

AGUSTIN MARITXALAR

1943ko otsailaren 12an Lesakako Lizardibaita baserrian jaio zen. Zortzi anai-arreba ziren, bera mutil bakarra. 16 urterekin, Lesakako fabrikan hasi zen lanean eta urte bat beranduago Ameriketara joan zen, Nevadara hain zuzen. Bertan lau urte eta erdi pasa zituen artzai eta ondoren Kaliforniara joan zen beste hiru urte eta erdi. 25 urterekin Lesakara itzuli eta fabrikan anbulantziarekin eta autobusarekin garraioan ibiltzen zen. 30 urterekin ezkondu egin zen Maria Teresa Adorekin. Berehala lehenengo alaba izan zuten eta Itziar izena jarri zioten. Handik bost urtera beste alaba bat izan zuten Estitxu izenekoa. Jubilatu arte gidari bezala ibili da beti fabrikan.

Bere zaletasun bat zaldian ibiltzea da, nahiz eta gaur egun ez ibili zaldia saldu zuelako. Musikarik gustukoena trikitixa eta mariatxiak ditu. Gaur egun Alkaigan bizi da alai eta zoriontsu.

BIRRAMATXI MARIA

Maria nire aitaren, aitaren ama zen. Maria 1918ko urtarrilaren 23an etorri zen mundura. Eta 1999ko urtarrilaren 23an joan zen.(Bere urtebetetze egunean hil zen).

Etxean egiten zuen lan umeak zaintzen eta…

Baserrian bazuten malda oso pikoa eta orduan belarra mozteko gerrian soka bat lotzen zuten eta soka goiko arbolari lotzen zioten ez erortzeko.

Mariak 1999ko urtarrilaren 23an utzi zuen bizidunen mundua.

JUANITA

Burdingurutze etxean jaio zen 1941eko abenduaren 31ean. Bere gurasoek Ignazio eta Serafina izena zuten. Hamaika anai-arreba ziren, nire amatxi txikiena zen. Nire amatxi 7 urterekin eskolara joan zen. Errepiderik ez zegoenez oinez joaten ziren eskolara . Nere amatxiren garaian emakumeak ez ziren ostatuan sartzen baina gizonak bai. Egunero etxeko lanak egiten zituen (egurra bildu, sua egin janaria egiteko). Ez zuten argirik, ez eta telebista edo irratirik ere. 15 urterekin Ondarroara (Bizkaia) lan egitera joan zen. Bi urte pasata Frantziara lanera joan zen (andre xahar bat zaintzera)

>>>

SEDENORT S.L.

Mantenimiento integral de instalaciones industriales.
Ingeniería y adecuación de maquinaria al RD 1215/1997.
Desmontaje / Montaje de maquinaria industrial.

C/ Bidasoa, 76 ▬ 31780 Bera (Navarra)
Tel./Fax: 948 62 50 09 ▬ E-mail: financiero@sedenort.com
www.sedenort.com

BERAko BEST

Saragueta
aholkularitza s.l.
abokatu bulegoa

Iparralde karrika,5 - Behea
31780 Bera (Nafarroa)
T. 948 62 51 62
M. 679 42 88 61
fsaragueta@abokatua.com
M. 615740512
bmugica@abokatua.com

Herriko Bestatan
gozatu ta gozarazi!

PAGOLA
EMBUTIDOS
y
CARNICERÍA

BERA
Obradorea: Alkaiaga ind. - Baldrun, 4
T. 948 631 627
Harategia: Altzateko plaza, 2
T. 948 630 054
e-posta: info@embutidospagola.es

ZELAIETA
tabakodenda
egunkariak, aldizkariak...

ONGI PASA BESTAK

Iturlandeta
Tel.: 948 631 246
BERA

TXIMISTINDAR
INSTALACIONES ELECTRICAS
Andueza e Iriarte, SL
INSTALACIONES ELECTRICAS EN GENERAL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046
jmandueza@tximistindar.com | jmiriarte@tximistindar.com

ETXEKO INSTALAZIOAK
INSTALAZIO INDUSTRIALA
INSTALAZIOAK INTELIGENTEAK
(DOMOTIKA KNX SISTEMA)
PROIEKTU ELEKTRIKOAK

PARTNER KNX

ENERGIA KOMERZIALIZATZAILEAK

DOMOTIKA

TAK 2018

ANDRES ECHENIQUE FAGOAGA

Andres Etxenike Fagoaga 1939ko azaroaren 29an jaio zen. Hirurogeita hemezortzi urte ditu. Zugarramurdin jaio zen. (Etxean) Bere gurasoak Genaro Echenique eta Maria Fagoaga ziren. Bere anai-arrebak hamaika ziren. Bera zortzigarrena zen.

Zugarramurdira joan zen eskolara. 10 urterekin lana egiten hasi zen bere familiako baserrian. 16 urterekin joan zen Bizkaira artzain. 18 urterekin zerbitzu militarra egin zuen Sahara Mendebaldeko Sidi Ifnin. 18 hilabete pasa zituen zerbitzu militarra egiten. Handik Arizkuneko benta batean lana egitera joan zen. Han, Eugenia ezagutu zuen eta harekin ezkondu zen 1967an. Bere lehen semea izan zuten Jesus Mari. Ondoren, Berara bizitzera joan ziren. Urte bat geroago bere bigarren umea izan zuten Maria Belen. "Saveran" egin zuen lana erretiroa hartu zuen arte. Gaur egun, paseatzen ibiltzen da eta bere baratzea eta bere ardiak zaintzen ditu.

HIPOLITO ECHEPARE: NIRE BIRRATATXI

Nire birratatxi Hipolito 1902.urtean jaio zen Lesakan eta 1991.ean hil zen.

Oiartzungo mehategietan egin zuen lan eta tren txikitoko burdinbideak Alkaiagatik Endaltsara konpontzen ere. Gerra zibilean Endaltsako zubia lehertarazi zuten, eta berari errua bota zioten. Baina berak ez zuen egin. Hala ere kartzelara eraman zuten hiru urtez. Kartzelako lagunetako bat Pepito lantzi konpositorea zen. Hipolito Ezpata-dantzako kapitaina zenez, Pepitok lantzik jota bat bere izanarekin dedikatu zion.

BIXI AMESTOI ARRIJURIA: NIRE AMAREN AMA

Amatxi Bixi 1942ko Apirilaren 8an jaio zen Elbete herrian. Hamar anai-arreba ziren. Nire amatxiren aitak txokloak (egurrezko zapatak) egiten zituen eta horregatik txokleroa deitzen zioten. Amatxi 6 urtetan monjetan hasi zen eta 14 urterekin bukatu zuen. Ondotik, etxe batera lan egitera joan zen, zaintzaile eta zerbitzari bezala. Han urte aunitz egon zen eta gero familia horrek zeukan kable-fabrikan lanean hasi zen. Ezkondu zenean, lana utzi zuen eta Legasara bizitzera joan zen. Hasieran gogorra egin zitzaion familia ez zuelako ikusten. Bi alaba izan zituen, Idoia eta nire ama. Eta hiru biloba, Ekai, Ibon eta ni. Alabak izan ondotik kotxeko karneta atera zuen, horrela bere familia nahi zuenean ikustera joaten ahal zen. Orain 76 urte ditu eta Doneztebeko abesbatzan kantatzen du.

JOAQUÍN GARCÍA

Joaquin Garcia 1945. urtean abuztuaren 3an jaio zen Trillon. 16 urterekin Berara etorri zen lan egitera. Orain Beran bizi da bere emaztea Dorisekin. Bi seme-alaba ditu Bea eta Raul. Txikitan eskolan egon zen. Gero Berara etorri zen tailer batean lan egitera. Beranduago kamioia gidatzen lan egin zuen. Hogeita bost urterekin bizikletan ibiltzen hasi zen eta oraindik ere, 73 urterekin jarraitzen du bizikletan ibiltzen bost ordu egunero. Hirurogei urterekin jubilatu zen.

>>>

IDOIA

BESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!

PERFUMERIASIDOIA.COM

BERAKO OIHUA

NIRE ATATXI JUAN

Nire atatxi Lesakan jaio zen1952ko Abenduaren 11ean. Fernanda eta Patxi ziren bere gurasoak. Sei anai-arrebetatik bostgarrena da nire aitatxi. Eskolara Lesakako Eskol ttikira joan zen lehenengo eta gero frailetara. Zortzi urterekin askotan ez zen eskolara joaten eta etxeko animaliekin lanak egiten geratzen zen. Egun asko pasatzen zituen astoa eta behiekin menditik barrena. Eskolara joaten zenean eguerdi eta arratsaldeetan ere behietaz arduratu behar zen (Edaten eman, mendira eraman eta gero bueltan ekarri…) Hamahiru urterekin bukatu zuen eskola Lesakan eta Berako Lanbide Eskolera joan zen ikastera. Bertan "Oficialia de ajustador de mecanica" ikasten hasi zen. Hamasei urterekin ikasketak utzi eta Lesakako Laminaciones fabrikan hasi zen lanean. Hemeretzi urte zituela Mª Lourdes Lekuona ezagutu zuen Oiartzungo dantzaldi batean.

Hogei urterekin soldaduska egitera joan zen Gasteizera hasieran eta Irungo Ventas auzora gero.

1975eko Abenduaren 6ean ezkondu ziren Lesakan amatxik hemeretzi urte zituela eta aitatxik hogeita bi. Bertan bere lau alabak jaio ziren. Fabrikan lana egiten zuen bitartean beste lan batzuk egin zituen soldadore bezala. Besteak beste, Berako polikiroldegia eta Arantzako frontoiaren eraikuntza.

Frutikulturaren mundua asko gustatzen zitzaion eta azken urtetan ikastaro asko egin ditu eta fruitarbola aunitz jarri ditu.

Orain emaztearekin eta familiarekin denbora pasatzea da gehien gustatzen zaiona.

JUANA MARI

Juana Mari nire amatxi da, nire amaren ama. 1935. urtean jaio zen Sunbillan. Bere haurtzaroa zaila izan zen; lan asko eta ikasi gutxi.

Eskolara oinez joaten zen beti. Euria egiten zuelik bertze zapata pare bat motxilan eramaten zuen bustiak aldatu eta bertze pareak jartzeko.

MIGUEL ARTIEDA TELLETXEA

Nire atatxi da, 92 urte ditu eta urte honetan 93 urte beteko ditu. Irailaren 14ean betetzen ditu urteak. Zurgina izan da. Lau ume egin zituen M.Jesus Irazokirekin: Ana, Coro, Fernando eta Mikel. 93 urte ditu eta oraindik gidatu egiten du! Oso alaia da eta eskuzabala ere bai. Bere emaztearekin oso ondo eramaten da eta oso konten daude biak.

RAFAEL GABRIEL MÚGICA CELAYA

Hernanin jaio zen 1911.urteko martxoaren 18an. Luisen eta Ignaciaren semeak Ingenieritza industriala ikasi zuen Madrilen, baina berari literatura gustatzen zitzaion. "Residencia de estudiantes" eskolan bizi zen han intelektual asko zeuden. Eta han ezagutu zituen Garcia Lorca, Rafael Alberti… besteak beste. Bere familiako enpresan lana egiten zuen. Julia Cañedo- Argüelles emaztearekin bi seme izan zituen, Pilartxo eta Luis Gabriel. Gero fabrika utzi zuen, dibortziatu zen Madrilera bizitzera joan zen eta poesiara dedikatu zen. Madrilen hil zen 1990eko apirilaren 18an.

PASKUAL ETXEBERRIA

Nire atatxi da, nire aitaren aita.
1943. urteko abenduaren 3an jaio zen eta 2015. urteko otsailaren 26an hil zen.
Arantzan jaio zen eta 13 urterekin Berako baserri batera lana egitera etorri zen.
Egun batean Hondarribian nire amatxi ezagutu zuen eta maitemindu ziren. Amatxiren familia guztia arrantzalea zen eta bera beraiekin lanean hasi zen. Bi urtez Terranoban bakailua arrantzatzen egon zen. Lortutako diru horrekin, Berako pisua erosi zuen eta Laminazionesen lana aurkitu ondoren arrantza utzi zuen eta Berara etorri zen bizitzera. Nire amatxirekin hiru seme izan zituen, Aitor (nire aita), Joselu eta Txomin izenekoak.
58 urtetan erretiratu zen eta 76 urte zituelarik hil zen. Pertsona oso jatorra izan zen.